

Ikasle-asegurua

Urriko erreziboarekin batera, ikaslearen istripu-aseguruaren kobrantza egingo da. Urteko prezioa **15,60** eurokoa izango da.

Aseguru hau, ikasleak ikastolako ordutegian istripua izan ezker Poliklinika Gipuzkoan hartatzeko zerbitzua da. Ikaslea mediku zerbitzura guraso edo tutore legal batekin joan beharko da.



Euskararen eguna

Abenduaren 3an Euskararen eguna ospatuko dugu eta urtero bezala, [produktuen eskeintza](#) helarazten dizugu.

Eskatutakoa abenduaren 3a baino lehen iristea ziurtatzeko, **eskaera azaroaren 5a** baino lehen tutoreari helarazi.



Guraso bilera euskara errefortzuen inguruan

Ikasturte honetan ere, Udalak, euskara errefortzurako saioak antolatu ditu ikasleentzat. Saioetan parte hartuko duten ikasleen gurasoei informazioa eskaintzeko bilera egingo da.

Bilera, **astelehenean, urriak 14**, izango da Agerialde eraikinean arratsaldeko **16:00**tan. Agerialde eraikineko frontoian elkartzeko gara.



HAUR-HEZKUNTZA

HH 3ko guraso-bilera

Urriaren 22an 16:45ean haurren gelan, HH 3ko guraso-bilera egingo da.

Zaintza zerbitzua egongo da.



Zorriak

HH 5eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK
ASTE BURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

LH5: Arrituloko irteeraren kobrantza

Datorren ostiralean, urriaren 18an, Arritulora egindako irteeraren lehenengo zatiaren kobrantza egingo dela jakinarazten da, **25,45€**.

Kostu osoa 76,35 eukoa izan da eta kobrantza hiru zatitan egingo da.



DBH

Ez dago berririk.